

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

131. zenbakia

Data 2014-07-11

18 orria

4 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

412/2014 FORU AGINDUA, uztailaren 7koa, zergapekoen erroldan alta hartzeko, eta helbidea, datu pertsonalak eta harremanetarakoak aldatzeko 030 aitorten eredia onartzen duena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

412/2014 FORU AGINDUA, uztailaren 7koa, zergapekoen erroldan alta hartzeko, eta helbidea, datu pertsonalak eta harremanetarakoak aldatzeko 030 aitorten eredia onartzen duena.

Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, zerga helbidea arautzen du 48. artikuluan. Bertan dioenez, zerga administrazioarekiko harremanetan zergapekoa kokatzeko aintzat hartzen den lekua da zerga helbidea.

Geroago, artikulua horrek zehazten du zein den zerga helbidea pertsona fisiko eta juridikoen kasuan, sozietateen gaineko zergari lotutako gainerako entitateen kasuan, lurralde espainiarrean egoiliarak ez diren pertsona eta entitateen kasuan, eta, azkenik, sozietate zibil eta nortasun juridikorik gabeko entitateen kasuan, eta ezartzen du zergapekoak behartuta daudela beren helbidea zein den Zerga Administrazioari jakinaraztera, nahiz eta Administrazioak beti ulertu dezakeen zergapekoaren helbidea erroldan jasota ageri dena edo hura titular gisa agertzen den edozein ondasun higiezinaren edo ustiapen ekonomikoren kokalekua dela.

Orobat, dio zergapekoak helbidea aldatuz gero, Zerga Administrazioari horren berri eman behar diola berariazko aitortenaren bitartez, eta helbide aldaketak ez duela ondorioz izango zerga aitorten hori Administrazioaren aurrean aurkeztu den arte.

Abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua onartu zuen. Bada, erregelamendu horretan, beste gai batzuen artean, zentsu betebeharrak eta zerga helbidearen aldaketari dagozkionak arautzen dira.

Bestalde, apirilaren 2ko 287/2012 Foru Aginduaren bidez onarturik geratu zen zergapekoen erroldan alta hartzeko, eta helbidea, datu pertsonalak eta harremanetarakoak aldatzeko 030 aitorten eredia.

Bi urte igaro dira 030 eredia indarrean jarri zenetik, eta une hauetan beharrezko ikusi da ereduaren zenbait edukitan doiketa batzuk egitea haren bidez lortu nahi den informazio horniketaren helburuetara egokitzeko. Hala gertatzen da, esate baterako, banku-kontuei buruz ematen den informazioarekin, bere kudeaketak distortsioak eragiten baititu beste bide batzuen bitartez lortzen den informazioarekin alderatuta.

Zerga helbidearen informazioa emateari dagokionez, beharrezko iritzia da ongi argitzea zein-tzuk diren eman beharreko edukiak eta aitortena zer epetan aurkeztu behar den.

Arrazoi horiek batetik, eta zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua onartu izanak bestetik –abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuak onartu zuen–, komenigarri egiten dute 030 eredu berri bat onartzea foru agindu hau dela medio.

030 eredu berrian aukera mantentzen da zerga alorrean garrantzitsuak diren datu pertsonalak eta familiar jakin batzuk jakinarazteko, eta zergapekoen erroldan sartutako pertsona edo entitateekiko harremana hobetzeko datuak ere jarraitu daitezke ematen.

Era berean, mantentzen da Foru Administrazioarekin komunikatzeko hobetsitako hizkuntzari buruzko aukera, hain zuzen Administrazioarekiko harremanetan herritarrek zer hizkuntza hobesten duten jakiteko balio duena. Izan ere, horrela betetzen da Euskararen Normalizazioari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak 6. artikuluan jasotzen duena, alegia, herritar guztiei aitortzen zaiela, Autonomia Erkidegoaren lurraldean, herri administrazioarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta beren aukerako hizkuntza ofizialean hartuak izatekoa. Horrekin, bete egiten da harremana euskaraz izan nahi duten pertsona, entitate, enpresa eta administrazioen errolda bat osatzeko obligazioa.

Foru agindu honetan onartzen den 030 eredu berriak, bere aurrekoak bezala, lauki bat jasotzen du datu pertsonalak eta harremanetarakoak Gipuzkoako Foru Aldundiari lagatzen zaizkiola adierazteko. Aldundiak herri administrazio gisa dituen zereginak betetzeko erabiliko ditu datu horiek. Lauki hori ageri da, baita ere, 036 eta 109 ereduetan eta sozietateen gaineko zerga autolikidatzeko erabiltzen direnetan.

Horiek horrela, honako hau.

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 030 eredua onartzea.

1. Onaturik geratzen da 030 eredua, «Zergapekoen erroldan alta hartzeko, eta helbidea, datu pertsonalak eta harremanetarakoak aldatzeko aitorpen eredua» deritzona, foru agindu honetan eranskin gisa ageri dena.

Bi ale ditu ereduak:

— Zerga Administrazioaren alea.

— Interesdunaren alea.

2. Paperezko formatuan eta formatu elektronikoa izango da eskura 030 eredua.

2. artikulua. 030 eredua erabiltzea.

Zergapekoen Erroldan alta eskatzeko edo zerga helbidea aldatu dela jakinarazteko erabili behar dute pertsona fisikoek 030 eredua, betiere 036 eredua aurkeztera behartuta ez badaude. Orobat, datu pertsonal zein familiarak edo ereduan jasotako bestelakoak aldatu izanaren berri emateko erabili behar dute pertsona fisikoek eredu hori.

Helbide aldaketa jakinarazten bada aurreko paragrafoan edo foru agindu honen 4. artikuluko bigarren paragrafoan adierazitakoa ez bezalako eredu edo dokumentua erabilia, ez du ondorioz izango zerga Administrazioaren aurrean.

Zerga helbidearen aldaketa jakinarazteari buruz foru agindu honen 4. artikuluan ezartzen dena eragotzi gabe, hala zergapekoen erroldan alta hartzeko eskaera nola behartutakoaren zerga pertsonalari dagokion autolikidazioaren ereduan jasotako datu pertsonalak, familiarak eta 030 ereduan sartutako bestelakoak aldatzeko komunikazioa, autolikidazio horri dagokion ereduaren bitartez jakinarazi daitezke.

3. artikulua. 030 eredua aurkezteko moduak.

1. Paperezko formatuan eta bitarteko elektronikoa erabiliz aurkeztu daiteke 030 eredua.

2. Zergapeko bakoitzak banaka aurkeztu behar du eredua.

3. Paperezko eredua aurkeztu daiteke Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulegoetan, Gipuzkoako Foru Aldundiko erregistro zentraletan edo Ogasun eta Finantza Departamentuko erregistro zentrolean.

Ondorio horietarako, aurkezpen modalitate hau erabili nahi dutenek 030 eredua inprimatu behar dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa, Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean, kokaturik dagoen «Pdf» fitxategia deskargatuz, edo, bestela, Ogasun eta Finantza Departamentuaren herritarren arretarako bulegoetan eskatu behar dute eredua.

4. Eredua bitarteko elektronikoa erabiliz aurkezteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora jo behar da <https://www.gfaegoitza.net> helbidean sartuta.

Horretarako, egoitza elektroniko horretan kokaturik dagoen «Gipuzkoataria» zerbitzu telematikoen atarira jo behar da, eta bertan nork bere burua identifikatu egoitza elektronikoa onartzen diren sinadura elektroniko aurreratueto bat erabilia.

Bere burua identifikatu ondoren, interesdunak 030 ereduaren formulario elektronikoa bete behar du eta adierazten zaizkion jarraibideen arabera jokatu.

Aitorpena onartzen bada, Gipuzkoako Foru Aldundiak formularioaren datuak itzuliko dizkio pantailan, balioztapen kode bat emango dio, eta aitorpena zer ordutan eta zer egunetan aurkeztu den erakutsiko dio. Aitorpena errefusatzeko bada, formularioaren datuak eta aurkitutako akatsak azalduko dira pantailan. Kasu honetan, akatsak zuzentzeko, berriro bete beharko da formularioa.

4. artikulua. 030 ereduaren aurkezteko epea.

Oro har, edozein unetan aurkeztu daiteke 030 ereduaren aurkezteko arrazoia gertatzen den egunetik aurrera.

Eredua aurkezteko arrazoia zerga helbidearen aldaketa jakinaraztea bada, eta hori enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan altan egon behar ez duten pertsona fisikoek egiten badute, epea hiru hilabetekoa izango da, helbide aldaketa gertatzen denetik aurrera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, gertatuko balitz epe hori amaitu aurretik bukatzen dela helbidea aldatu ondoren zergapekoak bere zerga ordainketarengatik egin behar duen autoliquidazioa aurkezteko epea, komunikazio hori bidezko autoliquidazio ereduaren egingo da, betiere lehendik egin ez bada.

5. artikulua. Datu pertsonalak eta harremanetarakoak lagatzeko baimena ematea.

030, 036, eta 109 ereduaren eta sozietateen gaineko zergaren autoliquidazio telematikoa, pertsona edo entitate aitortzaileek adierazi dezakete baimena eman edo kentzen dutela foru agindu honetan onartutako 030 ereduaren hainbat laukitan –20tik 24ra, 30etik 38ra eta 60tik 103ra– jasotako datu pertsonalak eta harremanetarakoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren datu baseetara pasatzeko, bere zeregin publikoak bete ditzan.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrrik gabe geratzen da, apirilaren 2ko 287/2012 Foru Agindua, zergapekoen erroldan alta hartzeko, eta helbidea, datu pertsonalak eta harremanetarakoak aldatzeko 030 aitorpen ereduaren onartzen duena.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2014ko uztailaren 7a.—Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua (6508)

